

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobemu Kontseiluaren 3/2024 Presa fiskaleko dekretu arauemailea, abenduaren 27koa. Onesteia zerga osagarri baten aplikazioa, talde multinazionaleri eta talde nazional handiei gutxieneko zergapetze maila globala bermatzeko

Abenduaren 21ean, abenduaren 20ko 7/2024 Legea argitaratu zen BOEn. Lege horren bidez, zerga osagarri bat ezartzen da talde multinazionalentzako eta talde nazional handientzako gutxieneko zergapetze maila globala bermatzeko, finantza erakunde jakin batzuen interes eta komisioen marjinen gaineko zerga bat eta zigarreta elektronikoetarako eta tabakoari lotutako beste produktu batzuetarako likidoen gaineko zerga bat, eta beste zerga arau batzuk aldatzen dira.

Legeak bete egiten du Kontseiluaren 2022ko abenduaren 15eko 2022/2523 (EB) Zuzentaraua (Batasuneko enpresa multinazionalen taldeentzako eta talde nazional handientzako gutxieneko zergapetze maila globala bermatzeari buruzkoa) barne ordenamendu juridikora ekartzeko bete-beharra. Estatu kide guztiek eraman behar dute euren legedira, 56. artikuluan jasotako moduan; hau da, estatu kideek 2023ko abenduaren 31n jarri behar zituzten indarrean, beranduenez, zuzentzarauan ezarritakoa betetzeko beharrezkoak diren lege, erregelamendu eta administrazio xedapenak, eta xedapen horiek aplikatu behar zituzten 2023ko abenduaren 31tik aurrerako zergaldiei dagokienez. Erakundeen autonomiaren printzipio komunitarioaren aplikazioaren ondorioz, lurralde historikoei ere bete-behar bera dagokie, eta bi administrazioek zerga ituntzen dutenean, beren legedira ekarri beharko dute zuzentzaraua.

Espainiako Erresumak ez zuen zuzentzaraua bere ordenamendura ekarri aipatutako epean, eta, horren ondorioz, ebatze gutuna igorri zen 2024ko urtarrilean. Ondoren, irizpen arrazoitua eman zen urte bereko maiatzean. Bertan, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 260. artikulua aplikatuz ezar zitezkeen diruzko zehapenak kontuan hartuta, Batzordeak Tratatuari egokitzeko behar ziren neurriak hartzeko eskatu zion.

2022/2523 (EB) Zuzentzarauak zerga osagarria ezartzen du elkarri lotutako bi arauen bidez. Arau horien arabera, bermatzen da Europar Batasuneko estatu kideetan kokatutako talde nazional handiek edo matrizea Europar Batasuneko estatu kide batean duten talde multinazionalak lortutako errentek, azken kasu horretan, bai taldeko enpresak Europar Batasunean kokatuta badaude, bai Europar Batasunetik kanpo badaude, ehuneko 15eko gutxieneko tasa globala izango dutela. Elkarri lotutako arau horiek errentak sartzeko araua eta gutxiegi zergapetutako mozkinen araua dira; bigarren arau hori lehenengoaren euskarria da.

Alabaina, 2022/2523 (EB) Zuzentzarauak 11. artikuluan xedatzen duenez, estatu kideek haien lurraldeetan dauden eta euren jurisdikzioan gutxienez ehuneko 15eko tributazioa ez duten erakunde eratzaleei zerga osagarri nazional onargarri bat aplikatzea erabaki ahal izango dute, erakunde horiei dagokien zerga osagarria Espainian kokatutako entitateen partaidetzen titular-tasuna duen erakundea kokatuta dagoen jurisdikzioari egozteko saihesteko.

Aukera hori erabiltzeak eta horri lotuta zerga osagarriaren araudia Espainiako ordenamendu juridikoan sartzek, eta zergari buruzko araudiaren 2. artikuluan foru babeserako klausula tradizionala sartzek, bi administrazioak behartzen ditu, ados jarrita, Ekonomia Ituna aipatutako ordenamenduan izandako aldaketara egokitzera, indarrean dagoen Estatuaren eta Euskal Autonomia Erkidegoaren arteko Ekonomia Itunaren bigarren xedapen gehigarria aplikatuz (Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituna onesten duen maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onetsia).

Hori dela eta, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoak abenduaren 23an egindako bilkuran EAEko eta Estatuko administrazioetako ordezkarien artean hartutako lehenengo erabakiak zerga osagarriaren beharrezko ituna jasotzen du, eta EAEko araudiko zerga itundu gisa taxutzen du.

Hartutako erabaki hori Gorte Nagusietan izapidetu behar da, artikulu bakarreko lege proiektu gisa, zerga berri hori ituntzeko Ekonomia Itunean egindako aldaketak ordenamendu juridikoan txertatzeko.

Gorte Nagusiek zerga osagarriaren lege proiektua onesteko izandako atzerapenaren ondorioz, haren lehen sortzapena 2024ko abenduaren 31n gertatu da, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu, indarrean jarri eta egun gutxira; izan ere, 2022/2523 (EB) Zuzentaraua barne legedira ekartzeko betebeharra betez, abenduaren 20ko 7/2024 Legearen azken xedapenetatik hogeita bigarrenak adierazten du ondorioak izango dituela 2023ko abenduaren 31tik aurrera hasten diren zergaldietan.

Bi une horien arteko hurbiltasunak eragotzi egiten du lurralde historikoko erakunde eskudunek zerga sortu aurretik, hau da, 2024ko abenduaren 31 baino lehen, erabiltzea arautzeko ahalmena. Horregatik, segurtasun juridikoa dela eta, komeni da lurralde erkidean onetsitako araudira igortzea zergaren foru erregulazioa, 2023ko abenduaren 31ren ondoren hasten den lehen zergaldiaren sortzapenerako, harik eta Batzar Nagusiek, Ekonomia Ituna hura jasotzeko aldatu ondoren, Arabako Lurralde Historikoaren eduki arauemaile zehatzari buruzko dagozkion erabakiak hartu arte.

Espainiako Erresumak zuzentaraua bere legedira ekartzeko betebeharra ez betetzea ekiditeko, zergadunen segurtasun juridikoa bermatzeko eta zerga Arabako Lurralde Historikoan benetan aplikatzen dela ziurtatzeko, zerga osagarria bere lurralde eremuan nola aplikatuko den zehazten duen zerga premiako dekretu arauemailea onetsi behar da.

Aztertu da Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako arau inpaktuaren txosten laburra.

Horrenbestez, bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur egin duen bileran gaia aztertu ondoren, Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 8. artikulua eta Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketa eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak ematen dizkidaten eskumenez baliatuz, presako arrazoiak direla eta, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Zerga osagarri baten aplikazioa onestea, talde multinazionalentzako eta talde nazional handientzako gutxieneko zergapetze maila globala bermatzeko.

Bat. Zerga osagarria abenduaren 20ko 7/2024 Legearen bidez onetsi da, eta Arabako Lurralde Historikoan ondorengo artikuluetan adierazitako moduan aplikatuko da. Lege horren bidez, zerga osagarri bat ezartzen da talde multinazionalentzako eta talde nazional handientzako gutxieneko zergapetze maila globala bermatzeko, finantza erakunde jakin batzuen interes eta komisioen marjinen gaineko zerga bat eta zigarreta elektronikoetarako eta tabakoari lotutako beste produktu batzuetarako likidoen gaineko zerga bat, eta beste zerga arau batzuk aldatzen dira.

Bi. Harik eta Ekonomia Itunean zerga osagarriaren bidezko ituna sartu arte, abenduaren 20ko 7/2024 Legean jasotako araudia aplikatuko da.

Hiru. Zergadun bakoitzaren zerga osagarri nazionala, lehen mailakoa edo bigarren mailakoa, Arabako Foru Aldundiari ordainduko zaio, zerga egoitzaren arabera edo eragiketa bolumenaren proportzio beraren arabera, bat etorri Ekonomia Itunaren 15. artikuluan xedatutakoarekin, sozietateen gaineko zergaren edo, hala badagokio, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren azken zergaldiari dagokionez (zerga osagarriaren sortzapen egunean amaituta dagoena edo amaitu dena), eta, zerga baterakuntzaren araubidea aplikatuta zergak ordaindu dituzten zergadunen kasuan, talde fiskalaren eragiketa bolumenari erreparatuta.

Lau. Zergak bi administrazioei ordaintzen bazaizkie, autolikidazioa aurkeztu eta zerga zorra ordaindu behar duen zergadunaren ordezkioak dagokion autolikidazioa aurkeztuko dio Arabako Foru Aldundiari, arauzko epean eta formalitateekin. Autolikidazio horretan, betiere, aplikatu beharreko proportzioa eta administrazio bakoitzari dagozkion kuotak jaso behar dira.

Bost. Aitorpen informatiboa eta zerga osagarriaren araudian eskatzen diren gainerako komunikazio eta betebeharrak Arabako Foru Aldundiko organo eskudunei aurkeztu behar zaizkie, organo horiei dagokienean erakunde eratzaillearen edo talde multinazional batek edo talde nazional handi batek izendatutako erakundearen sozietateen gaineko zerga ikuskatzeko eskumena, edo, hala badagokio, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga ikuskatzekoa.

Sei. Arabako Foru Aldundiko organo eskudunei dagokie talde multinazional bateko edo talde nazional handi bateko kide diren zergadunen zerga osagarria ikuskatzeko eskumena, baldin eta zergadunaren ordezkioari Arabako Lurralde Historikoaren araudia aplikatu behar bazaio sozietateen gaineko zergan, Ekonomia Itunaren 14. artikuluko arauen arabera, edo, hala badagokio, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan, Ekonomia Itunaren 21. artikuluan jasotakoaren arabera, baldin eta talde multinazionalak edo talde nazional handiak zerga baterakuntzaren foru araubideari lotutako talde fiskal bat eta lurralde komuneko zerga baterakuntzaren araubideari lotutako beste bat baditu, aldi berean, Espainiako lurraldean.

Aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako, sozietateen gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren azken zergaldiari dagokion (zerga osagarriaren sortzapen egunean amaituta dagoena edo amaitu dena) araudia hartuko da kontuan.

Aitzitik, Arabako Foru Aldundiko organo eskudunei dagokie talde multinazional bateko edo talde nazional handi bateko kide diren zergadunak ikuskatzeko eskumena, baldin eta ez badituzte, hurrenez hurren, zerga baterakuntzaren foru araubideari eta zerga baterakuntzaren araubide erkideari lotutako bi talde fiskal Espainian, eta baldin eta talde multinazionala edo talde handiko zergadunaren ordezkioak lurralde horretan badu zerga egoitza. Hala ere, talde horren eragiketen bolumena 12 milioi eurotik gorakoa izan bada aurreko ekitaldian, eta ekitaldi horretan taldeak lurralde erkidean egin badu eragiketa bolumenaren ehuneko 75 edo gehiago, talde horretako zergadunak lurralde erkideko administrazioaren ikuskapen eskumenaren mende geratuko dira.

Talde multinazional bateko edo talde nazional handi bateko kide diren zergadunen kasuan, ez badituzte, hurrenez hurren, zerga baterakuntzaren foru araubideari eta zerga baterakuntzaren araubide erkideari lotutako bi talde fiskal lurralde nazionalan, lurralde erkideko administrazioaren ikuskapen eskumenaren mende geratuko dira, baldin eta talde multinazionala edo nazional handi bateko kide badira eta baldin eta talde multinazionala edo talde handiko zergadunaren ordezkioak lurralde horretan badu zerga egoitza. Hala ere, aurreko ekitaldian taldearen eragiketen bolumena 12 milioi eurotik gorakoa izan bada eta ekitaldi horretan taldeak Euskal Autonomia Erkidegoan egin badu bere eragiketa bolumenaren ehuneko 75 edo gehiago, talde horretako zergadunak Arabako Foru Aldundiko organo eskudunen ikuskapen eskumenaren mende geratuko dira, Araban egindako eragiketen bolumena gainerako lurralde historikoetan egindako eragiketen bolumena baino handiagoa bada.

Aurreko bi paragrafoetan xedatutakoaren ondorioetarako, taldeko eragiketen bolumena hau izango da: Espainian egoitza duen entitate eratzaille bakoitzaren sozietateen gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren ondorioetarako eragiketa bolumenaren batura edo gehikuntza, bidezkoak diren taldearteko kenketak egin aurretik, aipatutako zergen azken zergaldiaren aurreko zergaldiari dagokiona (zerga osagarriaren sortzapen egunean amaituta dagoena edo amaitu dena). Taldeak lurralde bakoitzean egindako eragiketen bolumena hau izango da: entitate eratzaille bakoitzak lurralde bakoitzean egindako eragiketen batura edo gehikuntza, bidezkoak diren taldearteko kenketak egin aurretik, ondorio horietarako sozietateen gaineko zergaren edo ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren arauen arabera aldi bererako zehaztu direnak edo zehazten direnak.

Zazpi. Aurreko apartatuan xedatutakoa gorabehera, hirugarren eta seigarren apartatueta adierazitako eragiketen bolumena egiaztatzeko eskumena Arabako Foru Aldundiko organo eskudunei dagokie, egiaztatzen den eragiketa bolumenaren taldeko entitateei sozietateen gaineko zergan edo, hala badagokio, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergan Arabako Lurralde Historikoaren araudia aplikatzen zaien kontuan hartuta.

Zerga osagarri nazionala, lehen mailakoa eta bigarren mailakoa, egotzi behar zaion erakunde bakoitzari egozteko proportzioak administrazio eskudunak finkatuko ditu egiaztapenetan, eta ondorioak izango dituzte zergadunarentzat likidatutako betebeharrei dagokienez; alabaina, baliteke egiaztapen horiek egin ondoren administrazio eskudunen artean behin betiko beste batzuk adostea.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta lurralde erkidean ondorioak dituen une beretik izango ditu ondorioak.

Bigarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Presa fiskaleko dekretu arauemaile hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen araudian ezarritakoarekin bat etorritz berretsi edo errebokatu dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko abenduaren 27a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA